



Arartekoaren 2017R-1942-16 Ebazpena, 2017ko urtarrilaren 9koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio berrikusi dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren ukapena.

Aurrekariak

2016ko urriaren 5ean XXX jaunak aurkeztutako kexa bat izapidetzeko onartu zen. Kexa Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea ukatu duelako bideratu da.

Kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestaziorako eskubidea aitortzeko eskatu zuen apirilaren 20an Miribillako bulegoan. Ildo horretan, Lanbideko zuzendari nagusiaren arabera, ez zen entzunaldi izapiderik egin ekainaren 13ko idazkia egin arte, hil bereko 29an jakinarazi zena. Bestalde, espedienteari gehitu zaion dokumentazioari esker egiaztatu da abuztuaren 18ko idazkiaren bitartez, hil bereko 31n jakinarazitakoa, Lanbidek berriz nabarmendu zuela, entzunaldi izapide baten bidez, hari zegozkion eduki ekonomikoko eskubideak baliatu behar zituela. Zehazki, honako hau eskatu zuen: "*(...) RECLAMAR EN JUZGADO DE LO SOCIAL (DEMANDA) LA CANTIDAD DE LA INDEMNIZACIÓN PARA PODER SEGUIR LA TRAMITACIÓN DE RGI. DEBERÁ APORTAR DICHA DOCUMENTACIÓN.*"¹

Entzunaldi izapideari erantzunez, kexagileak, irailaren 2ko idazkiaren bitartez, azaldu zituen kaleratua izan ondoren egin zituen jarduketak, eta jakitera eman zuen berari zegokion kalte-ordaina 6.013 eurokoa dela. Gainera, jakinarazi zuen berori 5.000 € ordaintzea lortu zuela egin zituen adiskidetze-ekitaldiei esker Adierazitako egoera frogatze aldera, aurkeztu zituen martxoaren 17an eta ekainaren 30ean eskatutako adiskidetze-aktak. Geroago, beste hitzordu bat eskatzeko instantziaren berri eman zion Lanbideri jakinarazpen-zedula baten bidez. Irailaren 20an eskatu zuen hitzordua eta urriaren 6rako eman zioten.

Adierazitakoa dela eta, lan-ordenamendu juridikoan ezarrita dauden jarduketak gauzatu zituen eta hainbat adiskidetze-espediente eskatu zituen Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan.

Aitzitik, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzea ebatzi zuen. Lanbideren irailaren 22ko ebazpenean jaso denaren arabera, honakoa izan zen horretarako

¹ Lanbidek 2016ko abuztuaren 18ko idazkian erabilitako enfasia du.



arrazoia: *"Iraizpenaren kontrako erreklamazio-prozeduran eskubideari uko egin izana edo atzera egin izana"*

Eskubidea ukatzeko ebazpenarekin ados ez zegoenez gero, kexagileak aukerako berraztertze-errekurtso bat jarri zuen urriaren 11n.

Ebazpen hau egin den egunean, erakunde honetan ez dago jasota Lanbideko zuzendari nagusiak ebazpena egin duenik.

Aurkeztutako kexa modu egokian izapidetze aldera, Arartekoak espediente honi lotutako informazioa eskatu zuen urriaren 26an. Zehazki, zenbait gogoeta helarazi zituen. Horien bidez, erakunde autonomo horrek azaldutako arrazoiarekin genuen desadostasuna adierazi genuen, eduki ekonomikoko eskubideari uko egin izanari buruzkoa baitzen aipatutako arrazoia.

Azkenik, azaroaren 25ean, Lanbideren idazki bat sartu zen erakunde honen erregistroan. Bertan, azaldutako gogoetei erantzunez, bere irizpideari eutsi zion Lanbideko zuzendari nagusiak, eta kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzeko erabakia berretsi zuen, kexagileak eduki ekonomikoko eskubideari uko egin ziola ulertu baitzuen.

Hortaz, beharrezko egitate eta zuzenbideko elementuak ditugula ulertuta, hurrengo gogoetak igorriko ditugu:

Gogoetak

1. Azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatu zuen abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 62.2. artikulua honako hau ezarri zuen:

- *"Ebazpena emateko organo eskudunak prestazioa onartzeko edo ukatzeko ebazpena gehienez ere bi hilabeteko epean emango du, dagokion eskabidea aurkeztzen denetik kontatzen hasita. Epea amaitzen bada berriazko ebazpenik eman gabe, eskatutakoa diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria badira, eman egin direla ulertuko da, eta gizarte-larrialdietarako laguntzak eskatu badira (...)."*

Adierazitako kasuan, kexagileak eskubidea aitortzeko eskatu zuen apirilaren 20an; hala ere, Lanbideko zuzendari nagusiak erakunde honi erantzuteko





idazkian azaldu duenez, Lanbidek ez zuen lehenengo entzunaldi izapidea esleitu ekainaren 13ko idazkia egin arte, hil bereko 29an jakinarazitakoa, eta izapide horretan zenbait agiri aurkezteko eskatu zuen.

lido horretan, Arartekoak gogorarazi nahi du eskaeraren balizko balioespena administrazioaren benetako egintza dela. Zentzu horretan eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24.3 a) artikulua ezarri zuen moduan: *"Administrazio-isiltasunez baietsitako kasuetan, egintzaren ondoren ebazpen adierazia ematekotan, berresteko izango da."*

Horrela, balizko gaitzespen-ebazpen berantiar batek isilpeko baliogabetzea ekarriko luke, eta, hortaz, aldeko ondorioak ezeztatu ezin daitezkeenez, Zuzenbidearen aurkakoa izango litzateke.

2. Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 31.1. artikulua eduki ekonomikoko eskubideak eta prestazioak egiaztatzearen inguruan ezarritakoarekin bat etorriz, prozeduraren instrukzioan egiaztatu beharra dago eskatzaileak eta haren bizikidetz-unitateko kideek bete-betean baliatu dituztela egoki dakizkiekeen eduki ekonomikoko gizarte-eskubideak eta -prestazioak. Horretarako, epairik edo beste ebazpen judizialen bat eman ez den kasuetan, kexa-prozedura abiarazi izana eskatzen da eta *"horretan ez atzera egin edo ez horri uko egitea"*.

Adierazitakoa dela eta, Arartekoaren ustez kexagileak ez dio uko egin dagokion eduki ekonomikoko eskubideari; izan ere, laneko arloan ezarrita dagoen kexa-prozedura jarraitu du, eta horrek adiskidetze-espeditatea alde aurretik eskatzeko beharra ezartzen du. Gainera, aski egiaztatu da kexagileak azkenik lortu duela kaleratzeari erantzuteko laneko arautegian ezarrita dagoen kalte-ordaina. Hots, kaleratzearen aurrean kexa aurkeztu zuen eta kalte-ordaina eskatu zuen, zenbait adiskidetze-ekitaldi egin ostean ordaindu ziotena. Are gehiago, eskatutako adiskidetze-ekitaldietan abenikorik ez balego, kexagileari berdin aitortu izango litzaioke eskubidea aurrerago, bide judizialean.

Bada, urriaren 10eko 36/2011 Legearen 63. artikulua ezarritakoaren arabera, honelako kasuetan alde aurretik eskatu beharra dago adiskidetze-espeditatea. Horrela, gisa honetara eratzen da: *"requisito previo para la tramitación del proceso el intento de conciliación, o en su caso, ante el"*





servicio administrativo correspondiente o ante el órgano que asuma estas funciones”.

Arestian adierazi den bezala, kexagileak laneko arautegian ezarrita dagoen kalte-ordaina jaso zuen kaleratu zutelako (6.013 €), eta beste 2.000 € berandutzegatiko legezko interes gisa. Hau da, kaleratzearen aurrean kexa aurkeztu zuen eta kalte-ordaina eskatu zuen, zenbait adiskidetze-ekitaldi egin ostean ordaindu ziotena. Bestalde, ezin da ondorioztatu kexagileak horri uko egin dionik, are gutxiago aski egiaztatu delako adiskidetzearen eraginkortasuna.

3. Espedienteari gehitu zaion dokumentazioaren bidez egiaztatu da, kexagileak kaleratze baten aurrean kexa aurkezteko legezko neurriak baliatzeaz gain, neurriok eraginkorrak izan zirela, azkenean kalte-ordainaren zenbateko osoa jaso baitzuen, bai eta berandutzegatiko legezko interesa ere.

Egitate hori modu egokian jakinarazi zitzaion Lanbideri, eta eskatutako adiskidetze-espedienteen aktak aurkeztu zitzaizkion, honako hauek hain zuzen: martxoaren 17koa, ekainaren 30ekoa –horren bidez, azkenean 1.000 € eman zizkieten enpresaren ordezkariak agertu ez arren– eta irailaren 20koa, zeinaren bidez falta zen zenbatekoa ordaindu zioten. Zehazki, azken akta horrek hauxe ezarri zuen berariaz:

- *“Con el percibo por la parte del solicitante de las cantidades indicadas, ambas partes se tendrán por recíprocamente saldadas y finiquitadas por toda clase de conceptos, sin que tengan nada más que reclamarse.”*

Hala ere, Arartekoak egindako informazio-eskaerari erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak honako hau adierazi zuen:

- *“Egindako azken izapidean, hots, abuztuaren 18an, interesdunak aitortu zuen enpresa ez zela deitutako azken adiskidetze-ekitaldira bertaratu (4.013,00 euro zituen kobratzeke), eta, beraz, egintza hori baliogabetu zela. Lanbidek, hortaz, eskatu zion berariaz justifika zezala jasotzeko duen kalte-ordainaren gaineko salaketa judiziala abiarazi izana. Izan ere, beharrezkotzat jotzen dugu erreklamazio hori egitea, eskatzailea dagokion eskubide ekonomikoaz baliatu dela iritzi ahal izateko.”*





Lanbideko zuzendari nagusiak adierazitako eskakizunaren aurka, kexagileak azkenean 8.013 € jaso zituen guztira, lan-arloko jurisdikziora jo behar izan barik.

Abuztuan beste adiskidetze-espeditente bat eskatzeko ezintasuna modu egokian jakinarazi zitzaion Lanbideri irailaren 2an. Hain zuzen, ezin izan zuen espeditentea eskatu laguntzen zion sindikatuko legelaria oportetan zegoelako.

Adierazitakoa gorabehera, jaso duen zenbatekoa ezohiko diru-sarreratzat joko da, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20.3 a) artikuluari jarraikiz, aitorten-eskaera egin ondoren ordaindu baitzioten. Horregatik, aipatutako diru-sarrerak, horiek erabili ahal izan diren egunaren ondorengo hirurogei hilabeteetan, konputatuko dira emaitza honen zenbatekoaren hileko diru-sarrera baliokide gisa: sariaren guztizko zenbatekoa zati hirurogei.

4. Eduki ekonomikoko eskubideak baliatzeko beharrari dagokionez, erakunde honek bere iritzia emateko aukera izan zuen, besteak beste, honen bidez: Arartekoaren 2015R-1250-15 Ebazpena, azaroaren 2koa². Horretan, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko ebazpena berrikusteko gomendatu zuen, haren ustez kexagileak eginbide egokia bideratu zuelako eduki ekonomikoko baliabideak baliatzean.

Labidek Arartekoaren gogoetak modu egokian jarraitu ez bazituen ere, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako 1. epaitegiaren ekainaren 16ko 129/2016 Epaia demandatzailearen uziak baietsi zituen, erakunde honek egindako gogoetak oinarri hartuta. Laburbilduz, epaitegiak ondorioztatu zuen adierazitako kasuan ez zuela antzeman Lanbidek alegatutako "*uko egin izana*" eta azkenean ondorioztatu zuen demandatzaileak unean-unean eskatu daitekeen eginbide egokia bideratu zuela.

Bestalde, epaitegiak honako hau adierazi zuen bere argudiaketan:

- "*(...) el propio ejercicio en plazo de las acciones de reclamación tampoco garantiza una mayor eficacia en su reclamación, como pone de manifiesto, dada la situación objetiva de juzgados y tribunales, la doctrina del TC sobre dilaciones indebidas al amparo del artículo 24 de*

² http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_3807_3.pdf



la CE (vide ad exempla la Sentencia 77/2016, de 25 de abril de 2016 (BOE núm. 131, de 31 de mayo de 2016))."

5. Labur, Arartekoak ondorioztatu du honako kasuan kexagileak ez ziola uko egin bere eduki ekonomikoko eskubideari, Lanbidek berretsi duen bezala; aldiz, eginbide egokia bideratu zuen, horretarako ezarrita dagoen legezko prozedurari jarraikiz, eta azkenik, egiaztatu den moduan, kaleratze objektiboagatik zor zitzaion kalte-ordainaren zenbateko osoa ordaintzea lortu zuen, bai eta berandutzegatiko legezko interesa ere.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluekin bat etorritz, hauxe igortzen da:

GOMENDIOA

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzeko ebazpena berrikustea, egiaztatu baita kexagileak berari zegozkion eduki ekonomikoko eskubideak baliatu zituela. Ondorioz, gainerako baldintzak betetzen badira, irailaren 22ko ukapen-ebazpena baliogabetzea eta prestaziorako eskubidea aitortzea, eskaera egin eta hurrengo egunetik aurrera, eragindako atzerapenak ordainduz.

